


ZERBITZU KARTA

2. bertsioa. 2025ean berrikusia



ARABAKO ARTXIBOA

KULTURA ETA KIROL SAILA

araba  álava
foru aldundia diputación foral



INFORMAZIO OROKORRA

1. Irismena

Arabako Artxiboa

2. Helburua eta misioa

Arabako Artxiboak misio bikoitza du:

- Arabako dokumentuen ondarea doan kontserbatu eta hedatzea, ezagutarazi eta aberasteko, eta bermatzeko herritarren informaziorako eta kulturarako eskubidea betetzen dela
- Arabako Foru Aldundiak sortutako dokumentuen kudeaketa sistema kudeatzea

3. Kartaren erakunde arduradunaren identifikazio datuak

Arabako Foru Aldundiko Artxiboko eta Dokumentuak Kudeatzeko Zerbitzua

INFORMAZIO OROKORRA

4. Zerbitzuen zerrenda

Zerbitzua	Zerbitzuen xehetasunak
DOKUMENTAZIORAKO ETA INFORMAZIORAKO SARBIDE PUBLIKOA	– Arabako Artxiboak kontserbatutako dokumentuak aurrez aurre eta doan kontsultatzea. – Aurrez aurre kontsultatzeako dokumentuak aurretik erreserbatzea. – Interneten bidez doan kontsultatzea Arabako Artxiboko dokumentuen eta bibliografiaren datu baseak eta haiek hedatzeko prestatutako irudiak: Arabako Artxiboaren Ataria-Arabadok Photo-Araba Espainiako Artxiboen Ataria-Pares – Artxiboko liburutegi osagarri sartzeara, zeina espezializatuta baitago artxibistikan, agiriaren kudeaketan eta Arabako historian. Liburutegiaren katalogoa hemen dago: Euskadiko Irakurketa Publikoko Sarea eta Kultura Ministerioaren Estatuko Artxiboen Liburutegien Katalogo Kolektiboa. – Informazioa eta aholkularitza Arabako Artxiboak kontserbatutako funtsen eta agiriaren bildumen inguruan eta orientabide orokorrak Arabako dokumentuen ondarearen inguruan. Aurrez aurre, posta elektronikoz edo AFAko egoitza elektronikoa eskatu daitezke:



INFORMAZIO OROKORRA

Zerbitzua	Zerbitzuen xehetasunak
DOKUMENTUEN ERREPRODUKZIOA	– Arabako Artxiboan kontsulta daitezkeen dokumentuak paperean edo modu digitalean erreproduzitzea. Eskuragarri dauden erreprodukzio modalitateei, indarreko prezio publikoei eta Arabako Foru Aldundiak ezarritako ordainketa moduei buruzko informazio gehiago eskuratzeko, kontsultatu hemen: 
PRESTAKUNTZA ETA ZABALKUNDE JARDUERAK	– Dokumentuen ondarearekin eta historiarekin lotutako aldi baterako erakusketak antolatzea. – Artxibistikarekin eta dokumentuen ondarearekin lotutako prestakuntza jarduerak (ikastaroak, jardunaldiak) edo zabalkunde jarduerak (hitzaldiak, tailerrak) antolatzea. – Arabako Artxiboan bisita pedagogiko gidatuak egitea instalazioak eta bertan egiten diren lanak ezagutzeko.
DOKUMENTUAK ALDI BATERAKO UZTEA ERAKUSKETETARAKO	– Erakunde publikoei eta pribatuei doan eta aldi baterako mailegatzea Arabako Artxiboan kontserbatutako dokumentuak, segurtasun baldintzak betetzen dituzten interes orokorreko erakusketetarako.
ESPAZIOAK LAGATZEA	– Artxiboko espazioak lagatzea, irekitzeko ordutegiaren barruan, erakunde publiko edo pribatuek antolatutako doako eta interes orokorreko jarduerak egiteko.

INFORMAZIO OROKORRA

5. Erakundearekin eta zerbitzuak ematen dituzten zentroekin harremanetan jartzeko informazioa

Zentroa	Arabako Artxiboa
Posta helbidea	Zumakadi pasealekua, 21; 01006 Vitoria-Gasteiz
Telefona	945 18 19 27
Faxa	945 18 19 37
Posta elektronikoa	archivo@araba.eus
Web orria	https://web.araba.eus/eu/kultura/artxiboak-eta-dokumentu-ondarea
Ordutegi orokorra	Astelehenetik ostiralera: 08:15etik 14:30era
Nola heldu	Tranbia: Hegoalde (Ibaiondo-Unibertsitatea linea) Autobusa: Hegoalde geltokia (BEI A eta B linea)
Aparkalekua	Doakoa instalazioetan



INFORMAZIO OROKORRA

6. Erabiltzaileen eskubideak eta betebeharrak

- Zerbitzuko instalazioetara eta irakurgelara libre sartzea, baliozko nortasun agiria erakutsi eta gero.
- Artxiboko funtzionamenduaren eta barneko erabilera arauei buruzko informazio orokorra jasotzea.
- Doan kontsultatzea Artxiboan kontserbatutako dokumentuak, gehienez ere, 20 pertsonako eta eguneko, informazio publikoa eskuratzeko eta datuak babesteko indarreko araudia errespetatuz eta albo batera utzi gabe dokumentuen kontserbazio arrazoiengatik ezarri ahalko liratekeen mugak. Dokumentuen ondarearen segurtasunerako, erabiltzaileek fitxa bat bete beharko dute, kontsulta arauak beteko dituzte eta irakurgelako langileen jarraibideei kasu egingo diete.
- Artxiboan kontserbatutako funtsei eta eskuragarri dauden deskribapen tresnei (inbentarioak eta katalogoak) buruzko orientabide orokorrak jasotzea ikerketa gidatu dezaten. Kontsultan interesa duten pertsonak hautatu eta aztertu beharko dute jendaurrean jarritako dokumentazioa, ikerketa lan espezifikoa eta pertsonala eskatzen baitu.
- Eskuratu diren dokumentu guztien erreprodukzioa jasotzea dagozkion prezio publikoak ordainduta.
- Eskuratu diren dokumentuen kopia konpultsatuak jasotzea, baita irakurgelako bertaratze ziurtagiriak ere. Kopia eskuratzeko Arabako Foru Aldundiko prezio publikoak ordainduko dira.

INFORMAZIO OROKORRA

7. Kartaren hizpide diren zerbitzuei aplikatzekoa zaien araudia

Orokorra

- 19/2013 Legea, abenduaren 9koa, gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzkoa.
- 5/2022 LEGEA, ekainaren 23koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Dokumentu-kudeaketa Integralaren eta Dokumentu-ondarearena.
- 16/1985 Legea, ekainaren 25ekoa, Espainiako Historia Ondarearena.

Dokumentazioa eskuratzea eta erreprodukzioak jasotzea

- Foru Gobernu Kontseiluaren 5/2022 Foru Dekretua, urtarrilaren 11koa, Onespena ematen diena Kultura eta Kirol Sailaren artxibo eta liburutegiekin zerikusia duten zerbitzuak emateagatiko prezio publikoei, bai eta sail horrek antolatutako kultur ekitaldietarako sarrerak saltzeagatiko prezioei ere.

Arabako Probintzia Artxibo Historikoari dagozkion Estatuaren estatuko titulartasuneko funtsen araudi espezifikoa

- 1708/2011 Errege Dekretua, azaroaren 18koa, Espainiako Artxibo Sistema ezartzen duena eta Estatuaren Administrazio Orokorraren eta haren erakunde publikoen Artxibo Sistema eta bertan sartzeko araubidea arautzen dituen.

INFORMAZIO OROKORRA

8. Zerbitzuei buruzko intereseko beste datu batzuk

Zerbitzuak kontserbatzen dituen dokumentu funtsei buruzko informazio gehiago eskuratzeko kontsultatu orrialde hau:



Erabiltzaileak eroso egoteko eta zerbitzuaren baldintzak hobetzeko, irakurgelan eskuragarri daude hauek:

- Armairuak arropa, poltsak eta segurtasun arrazoiak medio irakurgelan sartu ezin diren gainerako objektuak uzteko
- Liburuak edo dokumentuak jartzeko atrilak
- Interneterako doako wifi konexioa
- Kontsultarako informatika puntu bat
- Atsedeen hartzeko lekua

Zerbitzuak urtero argitaratzen ditu, bere web orrian, egindako jarduerak, emaitzak eta Zerbitzuari esleitutako aurrekontuaren erabilera ezagutzeko datu estatistikoak.

KONPROMISOAK ETA ADIERAZLEAK

ZERBITZUAK	KONPROMISOAK	ADIERAZLEAK
ARTXIBORAKO, DOKUMENTAZIORAKO ETA INFORMAZIORAKO SARBIDE PUBLIKOA	Irakurgelan kontsultatzeko nahiko postu izatea, erosoak eta irisgarriak, eta gogobetetze inkestetan batez besteko 7ko nota eskuratzea 10etik instalazioen erosotasunari eta jasotako tratuari buruzko ataletan.	Zerbitzuaren gogobetetze inkestako galderan jasotako batez besteko nota.
	Kontsulta gelan gehienez 5 dokumentu, liburu edo aldizkari ematea, eskaera egin eta gehienez 15 minutuko epean. Artxiboko kanpoko biltegian dauden dokumentuak, liburuak edo aldizkariak eskatzen direnean hurrengo egun baliodunean entregatuko dira.	Ezarritako epean emandako dokumentuen eta liburuen ehunekoa.
	Modu pertsonalizatuan erantzutea aurrez aurre edo telematikoki Artxihoan kontserbatutako funtsei edo dokumentu bildumei buruz egindako kontsultei; zehazki, horien %90i erantzutea hilabeteko epean.	Ezarritako epean erantzundako kontsulten ehunekoa.

KONPROMISOAK ETA ADIERAZLEAK

ZERBITZUAK	KONPROMISOAK	ADIERAZLEAK
HEDATU ETA ZABALTZEKO DOKUMENTUAK ERREPRODUZITZEA	30 kopia edo irudi gaingitzen ez dituzten eskatutako erreprodukzioak ematea gehienez ere ordainketa egin eta hilabeteko epean.	Ezarritako epean emandako erreprodukzio eskaeren ehunekoa.
PRESTAKUNTZA ETA ZABALKUNDE JARDUERAK	Prestakuntza eta zabalkunde jardura doakoak eta askotariko publikoari doitutakoak eskaintzea eta jardura horiek baloratzeko inkestan batez beste 10 puntutik 7 eskuratzea.	Zerbitzuak antolatutako jardueren gogobetetze inkestako galderan jasotako batez besteko nota.
DOKUMENTUAK UZTEA ERAKUSKETETARAKO	Erakusketetan erabiltzeko dokumentuen aldi baterako mailegu eskaerei erantzutea eskaera egin eta gehienez ere hilabeteko epean.	Ezarritako epean erantzundako eskaeren ehunekoa.
ESPAZIOAK LAGATZEA	Espazioak lagatzeko eskaera guztiei erantzutea eskaera egin eta 3 egun baliodun baino lehen.	Ezarritako epean erantzundako eskaeren ehunekoa.

ERABILTZAILEEK HOBEKUNTZAN PARTE HARTZEA

1. Kexen eta iradokizunen sistema

Erabiltzaileek gure zerbitzua hobetu dezakete iradokizuna, kexa edo esker ona aurkeztuz aurrez aurre eskuragarri dauden inprimakietan edo esteka honetan:



2. Hobekuntzan laguntzeko beste modalitate batzuk

- Gogobetetze inkestak betetzea

Zer uste duzu Arabako Artxiboak ematen duen zerbitzuari buruz?



Zer uste duzu Arabako Artxiboak egiten dituen zabalkunde jarduerari buruz?



- Erakusketetako sinaduren liburuan iritzia ematea